



**Uda Leku elkarteko
Adingabekoen hezkuntza
harrera kolektiboen (AHHK)
heziketa egitasmoa eta
formakuntza gune**

Aurkibidea

Sarrera	3	5/ Antolatzaileak hartutako neurriak, harreraren segipena eta ebaluaketen segurtatzeko	24
Araudi aipamena	4	Jarraipen modalitateak	25
Heziketa aisiak	5	Ebaluaketa modalitateak	26
Euskararen tokia aisetan	6	6/ Hezkuntza taldearen esku, eman baliabide materialak, finantzieroak eta gizatiarrak	27
Talde pedagogikoa	7	Lokalak	28
AHK en kontestua	8	Beste baliabideak	29
1/ Adingabeen behar psikologikoak eta fisiologikoak	9	7/ AHK-en funtzionamenduan, adingabekoen ordezkari legalen lekua	30
Segurtasun fisikoaren, afektiboaren eta moralaren beharra	10	Adingabekoen ordezkari legalekiko komunikazioa	31
Behar fisiologikoak eta osasuna	10	Adingabekoen ordezkari legalen tokia, pedagogia egitasmoaren jarraipenean	32
Kide izatearen beharra	12	Haur famili ateilerrak	33
Nork bere estimuaren eta balorearen beharra	12		
Esperientziaren eta munduaren esplorazioaren beharra	12		
Adin aldikako gorenkiak	13		
2/ Osasun arazoak edo ahalmen urritasuna duten adingabekoen harrera	14		
3/ Helburu orokorrak	16		
4/ Helburu operatiboak	18		
Helburu orokorretatik helburu operatiboetara	19		
Gaitasun psikosozialak	20		
Gaitasun teknikoak	21		
Gaitasun psikomotrizeak	22		
Ondarearen eremuko gaitasunak	23		

Sarrera: Adingabekoen hezkuntza harrera kolektiboak (AHHK)



Araudi aipamena

L. 227-4 artikuluko bigarren alinean aipatutako heziketa, R. 227-1 artikuluan aipatutako harreretik bat antolatzen duen pertsona fisikoak edo moralak landu dokumentu batean deskribatua da.

Dokumentu horrek, adingabekoen behar psikologikoak eta fisiologikoak kontuan hartzen ditu, talde bizitzaren antolakuntza mailan eta jarduera ezberdinen praktikaren garaian, eta batez ere, jarduera fisiko eta kirol sailekoetan.

Antolatzaileak adingabeko osasuntsuak eta osasun nahasdurak edo handikapak dituzten adingabekoak hartzen dituelarik, heziketa egitasmoak harrera horren berezitasunak kondutan hartzen ditu.

R. 227-1 artikuluan aipatutako harreraren zuzendaritza edo animazioa segurtatzen duten pertsonen heziketa jardueraren helburuak finkatzen ditu heziketa egitasmoak eta harrera antolatzen duen pertsona fisikoak edo moralak hartutako neurriak zehazten ditu, harreraren baldintzen jarraipenaz jakinean izateko gisan. Harrera horietatik baten zuzendaritza edo animazioa segurtatzen duten pertsonak, funtzioak hartu aitzin, heziketa egitasmoaren jakinean jartzen dira. Beren esku emanak diren ahalbide materialen eta finantzarioen jakinean emanak dira. R. 227-1.

Heziketa egitasmoa eta proiektu pedagogikoak, adingabekoen legezko ordezkariak jakinaraziak dira, azken hauek errezebitu aitzin. Egitasmo horiek Estatuko zerbitzuei emanak zaizkie AHHK (hezkuntz egitasmoa) antolatzaile deklarazioa egiterakoan eta tokian bertako kontrolak egiterakoan.



Heziketa aisiak Uda Lekun

Adingabekoen hezkuntza harrera kolektiboak (AHHK) ez dira zaintza molde soil batzuk, baizik eta, haurren eta gazteen heziketarako antolatutako aldi erreal batzuk.

Beste heziketa inguruneekin batera, parte hartzen dute, koheziketa ikuspegi batetik, pertsona ororen **eraikuntzan, formakuntzan eta garapenean**. Ideia hau zaintzen dugu, hots, haurrak eta gazteak beren aisialdien eta bakantzen **eragile izaten** laguntzea, bakoitzaren **beharrak eta gaitasunak errespetatuz**.

AHHK-k, **ikasketarako leku** batzuk dira, psikosozial, teknika, psikomotore eta ondare sailetan. Uda Lekuren harreraguneak bizigune batzuk dira, bestearen ezagutza, banaketa eta elkartasuna esperimentatzea ahalbidetzen dutenak.

Uda Lekuren animazioak **heziketa herrikoi** baten urraspidean sartzen dira, metodo aktiboetan eta esperimentazio sozialetan finkatuz. Errepublikaren eta laikotasunaren balioen errespetuan barne da.



Euskararen lekua aisialdietan

Euskararen erabilpena indartu nahi dugu, bai eta haurrek, gazteek, familiek eta animatzaileek gure hizkuntzarenzat duten atxikimendua.

Baieztatzen dugu, murgiltze eredua dela, biderik egokiena euskara ulertzeko eta erabiltzeko. Hara zergatik, adingabekoak multzoan hartzeak murgiltze ereduan antolatuak diren. Iduritzen zaigu beharrezkoa dela, hitzegile bakoitzaren ezagutzaren heinari egokitzea, bakoitzaren ongi-izateari kasu eginez, euskara esperientzia baikor bat izan dadin denentzat (haur ala heldu). Horregatik, AHHK-etako pedagogia taldeek laguntzen eta errazten dute euskaraz hitzegitea, dela eguneroko bizitzan, dela jarduera ala animazioetan. Haurrei eta gazteei beren aisialdiko eta bakantzetako denbora euskaraz biziartzea, esperimentazio bidez konpreniaraztea da, euskara ez dela eskolako ikasgai bat bakarrik, baizik eta, hizkuntza bizi eta moderno bat egun orotako bizitzako hizkuntza bat.



Pedagogia taldea

Bakantza egonaldietako eta aisialdietako harreraguneetako pedagogia taldeek, elkartearen heziketa egitasmoarekin bat diren pedagogia egitasmoak lantzen eta obratzen ditute. Inguratzaile pertsonela euskaraduna da. Indarrean den arautegia errespetatzen du Uda Lekuk, adingabekoen inguratzeko beharrezkoak diren arduradun tasa eta diplomen aldetik. Egitasmoetan jarraipen bat segurtatzeko, gutienez, Uda Lekuko langile permanente jarraiki baten presentzia lehenetsia da.

Prestakuntzarako eta hitzartzerako bilkurak aitzinikusiak dira, AHHK-etako (zuzendari, animatzaile permanente ala aldikako) pedagogia talde guztientzat. Gainera, kontzertazio eta erabakitze instantziak, hala nola zuzendaritza batzordeak edo pedagogia batzordeak ere kasu egiten diote, Uda Lekuko AHHK guztien heziketa koherentziari, egituren problematiken partekatzeari, egitasmoak eta tresnak elkarren artean sortzeari, hala nola ahalbideei (gizatiar, material etabar...) bateratzeari.



AHHKen kontestoa

Uda Leku elkarteak 4 bilgune kudeatzen ditu, bost herritan kokatuak direnak: Baiona, Biarritze, Hendaia eta Uztaritze-Itsasu anitz-gunea. Harreragune horiek 3urtetik 11 arterainoko haurrentzat eginak dira.

Uda Lekuk giza heineko egiturak hobesten ditu, 20tik 80 haurretarainokoak, garai-aldien arabera.

Elkarteak 11 bakantza egonaldi antolatzen ditu, 6 urtetik 15 urte bitarteko haurrentzat.

Irekitze egunen kopurua
- Eskolako bakantzak : 70
- Asteazkena : 36

Uda Lekuk ez du eskolaz kanpoko harreragunerik kudeatzen, eskola aitzin edo ondoren, edota eguerdiko pausaldi deklaratu.

Adingabeen behar psikologikoak eta fisiologikoak



Segurtasun fisikoaren, afektiboaren eta moralaren beharra

Segurtasun morala = kontzientzia
erlijioso, filosofiko eta politikoaren
libertatearen errespetua..

Behar fisiologikoak eta osasuna

Loa eta pausa (egunaren kronologia ikus).

8:30 – 9:30 : zaintza arina, loaldi eskasiari edo 3 urte aitzineko loaldi
erritmoaren iraupenari lotua.

9:30 – 11:00 : zaintza goratua (epe laburreko oroimena).

13:00 – 14:00 : zaintza arina (siesta, pausa, lasai aldia).

14:30 – 16:30 : zaintza goratua (epe luzeko oroimena.)

16:00 – 19:00 : tarte ideala, jarduera fisikoentzat (gorputz tenperatura
gorena, metabolismo goratua, indar muskularra eta koordinazio
sensori-motriz gorena).


Edan, elikatu, higitu, hatsa hartu.

Osasun jarraipena.

Jardueren kurba



Loaldi zikloaren tren txikia



UDALEKU - CEMEA BAFIA ikastaldi elebiduna



Kide izatearen beharra

Lokarri sozialaren beharra.

Talde kide izatearen beharra.

Inguru baten, arauen eta mugen beharra

Nork bere estimuaren eta balorearen beharra

Bere batasunean ezagutua izatearen beharra.

Entzuna izatearen beharra.

Nor bere interesguneetan eta bere ekimenetan sustatua izatearen beharra

Esperientziaren eta munduaren esplorazioaren beharra

Esperientzia gorputzekoak eta fisikoak.

Esperientzia ludikoak.

Esperientzia espresiboak eta sortzaileak.

Esperientzia ezagutzarakoak (ezagutzaren eremuan lanean eman prozedura mentalak)



Adin aldikako gorenkiak

3-6 urte

Loaldi eta pausaren beharra;

Fisiologia eta osasun beharrak;

Sozialisazioa.

Urkikuntza beharra.

7-11 urte

Energia xahutzea neurtu;

Laguntasunaren adina;

Operazio konkretuen aldia;

Ikasketarentzat interes handia.

.

11-12 urte eta nerabe aurea

Autonomiaren beharra ;

Operazio formalen aldia (pentsamentu
hipotetiko-deduktiboa)

Teknizitate handiko jarduerak eta
egitasmo kolektiboak

**Osasun arazoak edo ahalmen
urritasuna duten adingabekoen
harrera**



Printzipioa

Helgarritasun printzipioa denentzat, handikapa edozein izanik ere, berriz finkatua da 2005eko otsailaren 11ko legearen baitan, eskubideen eta xantzen berdintasunerako, parte hartzerako eta handika egoeran dauden pertsonen herritasunerako.

Helburua : publiko horri ahalbidetzea, proposatuak diren jardueren bitartez eta handikaparen naturaren arabera, norberaren inklusioaren moldean parte hartzea. Handikap egoeran ez diren hurrek, beren handikaparen ikustapena alda dezakete, taldean bizi izan diren esperientzien bidez.

Animatzaileek, zuzendariak eta antolatzaileak, harrera hasi aitzin, haurraren handikaparen berezitasunaz abisatuak izan behar dute, jarduerak eta egunaren antolakuntza egokitzeke.

Harrera protokolo bat tokian emana izan behar da haurraren, heziketa taldearen eta familiaren beharren arabera.

Heziketa jardueraren helburuak



Helburu orokorrak

Haur eta gazte herritarrak egin:

- Haien osasuna eta gorputzaren zaindariak izanen direnak;
- Proiektu kolektibo eta elkartasuna erakusten duten proiektuen aktoreak izanen direnak;
- Beren bizitzaren eta erabakien egile izanen direnak;
- Beren ondare kulturala, hizkuntzakoa eta naturala munduari irekia atxikiko dituztenak;
- Sortzaileak izanen direnak eta pentsamentu kritiko bat garatzeko gai izanen direnak;
- Ulermenaren eta enpatiaren gainean finkatu joeraren gai izanen direnak.

Helburu operatiboak



Helburu orokorretatik, helburu operatiboetara

Helburu orokor horien lortzeko, Uda Lekuk helburu egingarritan deklinatu ditu, begistatutako lau gaitasunen bidez:

- Psikosozialak ;
- Teknikoak;
- Psikomotrizak ;
- Ondare mailako gaitasuna.

Helburu horietatik abiatuz, egitura bakoitzak, harreragune bakoitzak egitasmo pedagogiko bat landuko du, Uda Lekuren baloreen eta heziketa xedeen errespetuan.

Nahiz eta heziketa egitasmoa, egitasmo anitz-urtetako bat izan, pedagogia egitasmoa harreragune bateko denborakoa (urtekoa, hiruhilabetekoa...) izanen da. Ebaluaketa kriterioak finkatu ondoren, talde bakoitzak bere egitasmoa baloratuko du garai-aldi ezberdinak bururatzean



Gaitasun psikosozialak

Jardueretan, jokoetan eta zentroko bizitzan parte hartu, kooperatzaile moldean eta arauen errespetuan.

Nork bere nahikundea, iritzia, emozioa molde neurtuan agertu.

Ahozkoan bezala idatzian, molde efikazean komunikatu.

Elezkoa ez den komunikazioa kudeatu.

Gatazkak molde eraikitzailean kudeatu.

Taldeko erabaki eta egitasmoan parte hartu.

Elkartasunez eragin.

Ezberdintasunak onartu (sexua, jatorria, urritasuna).

Harreraren bizitzan parte hartzea finkatuko da, hartu diren adingabekoen galdeen eta nahikundeen bilduman (bilkurak, ideia kutxak, adierazpen taula), taldeko arauen lantzean eta haurren kontseilu bat lekuan ematean.



Gaitasun teknikoak

Esku jardueren sailean jakitateak eta egiten jakitea bildu.

Arte plastikoen sailean, jakitateak eta egiten jakitea bildu.

Ikusgarri biziaren sailean (audiobisuala, antzerkia) jakitateak eta egiten jakitea bildu.

Musikaren, kantuaren eta inprobisazio kantatuaren sailean, jakitateak eta egiten jakitea bildu.

Zientzia sailean, bereziki, garapen iraunkorrari dagozkion jardueretan jakitateak eta egiten jakitea bildu.

Kultura idatziari eta batez ere literatura eta poesiari ohitua izan.

Teknologia berriak meneratu kritikoa izanez.

Norbere hautuko jarduera kulturalera buruz joan, tokiko egiturekin loturak atxikiz.



Gaitasun psikomotrizak

Nork bere gorputza ezagutu eta arreta hartu.

Oinarrizko trebetasunez jabetu (artezia, iraupena, indarra, zalutasuna).

Jarduera fisiko eta kirol ezberdinak ezagutzea.

Tokiko egiturei dagokien jarduera fisiko eta kirol bati buruz bideratzea.



Ondarearen eremuko gaitasunak

Tokiko harreraguneko eta orokorkiago Euskal Herriko ondare kulturalaren eta naturalaren ezagutza.

Oroimen kolektiboaren ekarle diren gizaldi zaharrekin harremanak garatu.

Euskara ikasi eta erabili.

Euskaraz jolastu eta bizitu.

Ondare hori biziaraziko duen egitasmo kolektiboak landu.

**Antolatzaileak hartutako neurriak,
harreraren segipena eta ebaluaketan
segurtatzeko**



Jarraipen modalitateak

Egitasmo pedagogiko bakoitzarentzat bilan bilkura bat antolatuko da, koordinatzaile postuarekin.

Aterbegabeko aisi harrera gunetan (AAHG= bilguneak) eta egonaldietan dabilen denboran gertatutako edozein gertakari larri berehala seinalatua izanen zaio koordinatzaile postuari eta lehendakariari, Estatuko ((Cf. Casf R 227-11) zerbitzuen alderako seinalatze betebeharrak errespetatzeko.

Adingabeko baten kontrako kanporatze neurri oro, Administrazio kontseiluaren erabakiaren esku utziko da.



Ebaluaketa modalitateak

Honako heziketa egitasmoaren baliotasun iraupena, hiru urtekoa da.

Zuzendaritzako batzordeak eta Administrazio Kontseiluak urtero baloratuko dute.

Helburuen lorpenari eta bilguneen zuzendarien esperientzia itzulerari arreta berezi bat egingen zaie.

Urteroko ebaluaketak, horrela, aldaketa baliagarriak ekar ditzake heziketa egitasmoari

**Hezkuntza taldearen esku, eman
baliabide materialak, finantzieroak eta
gizatiarrak**



Tokiak eta eremuen antolaketa

Baionako bilgunea

Jean Cavaillès eskola,
Émile Betsellère karrika,
64100 Baiona.

Asteazkenetan :

Ama eskolako harrera
lekua eta liburutegi
gela.

Bakantza garaietan:
Lehen mailako eta ama
eskolako harrera
gunea.

Biarritzeko bilgunea

Reptou eskola, 28
Larrepunte karrika,
64200 Biarritze.

Ama eskolako gela
bat, harrera gunea eta
lehen mailako gela
bat.

Hendaiako bilgunea

Gure Ikastola, 9
Bigarena karrika,
64700 Hendaia.

Ama eskolako bi gela
eta lehen mailako bi
gela.

Uztaritze / Itsasu gune ainitzeko bilgunea

Eskola publikoa, vicinal bidea,
64250 Itsasu.

Ama eskolako eta lehen
mailako gela bat

Heraitzeko eskola publikoa,
Heraitzeko auzoa, 64480
Uztaritze

Lehen mailako eta ama
eskolako gela bat.

Egonaldiak

Egonaldietako
harreraguneak beraien
edo jarduera berezien
(camping, egoitza...) arabera hautatuak
dira. Elkartea ez da
egoitza bat beraren
jabe



Beste baliabideak

Budjeta pedagogikoa

Budjeta bat elkarteak mugatzen du. Budjetaren kudeaketaz arduradun dira zuzendariak

Giza baliabideak

Animatzaile bat, 6 urtez petiko 8 haurrentzat; animatzaile bat, 6 urtez goitiko 12 haurrentzat. Bitartekari espezialisatuei ere dei egiten diegu, euskaldunei bakarrik, egitasmoen arabera.

Elikadura

Elikadurarentzat, Uda Lekuk tokiko prestatzaile kanpokoei dei egiten die. Animazioko taldeak elikadurako animatzaile batek azkartzen ditu, jateko denboran.

Formakuntza

Noiztenkako animatzaileentzat eta permanenteentzat formakuntza jarraiturako plan bat finkatua da urtero, honako heziketa egitasmoa obratzeko, beharrezkoak diren gaitasunak azkartzeko

Material baliabideak

Uda Lekuk bere taldeen esku ematen du, jardueren inguraketarako beharrezkoa den materiala: egitura puzgarriak, neurrizgoitiko jokoak, gizarte jokia, kanpingako materiala, 5 mini-bus...

**AHHK-en funtzionamenduan,
adingabekoen ordezkari legalen lekua**



Adingabekoen ordezkari legalekiko komunikazioa

Uda Leku-k parte hartzen du, errezebitzen ditugun haurren heziketan. Baina heziketa, anitza eta partekatua izanik, adingabekoen ordezkari legalekin komunikatzea ardatz bat oinarrizkoa da, gure heziketa egitasmoaren erreusitzean.

Inguruki horretan, zuzendariek komunikatu behar dute:

- Uda Lekuren elkarte egitasmoa;
- Heziketa eta pedagogia egitasmoa;
- Bilguneen barne araudia;
- Asteroko planinga, menuak, bilgunetik kanpoko jarduerak edo egonaldikoak;
- Hartua den adingabekoa heltzean egin harreraren modalitateak..

Beharren edo nahikundearen arabera, familiei proposa daitezke harreman indibidualerako denborak.



Adingabekoen ordezkari legalen tokia, pedagogia egitasmoaren jarraipenean

Koheziketaren urraspide batean, garrantzitsua dela iduritzen zaigu, gisa batera edo bestera parte har dezaten familiek, beren haurren harrera denborari dagokion pedagogia prestaketan eta jarraipenean.

Horretarako pedagogia taldeek proposatzen dituzte :

- Informazio eta harreman bilkurak, galderak, kritikak eta proposamenak hartzeko eta tratatzeko xedez;
- Talde lanerako denborak, erabiltzaileen kontseilu baten baitan (Bilgune Bizi), pedagogia egitasmoaren prestakuntzan eta jarraipenean parte hartzeko (eraketa modalitateak eta funtzionamendua finkatu behar dira).



Haur/ famili ateilerrak

Hitzarmenezko harrera denboretaz aparte, Uda Lekuk familiei proposatu nahiko lizkieke lagun-arteko denbora batzuk euskaraz.

Horretarako, bere heziketa egitasmoaren baitan, elkarteak proposatzen du:

- Gurasotasunaren laguntzea, tailer tematiko batzuen bitartez, elkarteko heziketa taldeak emanik edo kanpotikako baten eskutik;
- Animazioak, euskarazko ateraldiak, familiarekin partekatzeak;
- Gurasoen arteko harreman denborak.



UDA LEKUREN FORMAKUNTZA ARLOKO HEZKUNTZA PROIEKTUA

2022an eguneratua



Aurkibidea

1/ Uda lekun, formakuntza arloaren kuadroa eta kontestua	36
Arau oroitarazpena	37
Formakuntzaren kontestua	38
Aiga formakuntzen kuadroa	39
2/ Euskaraz ere, metodo aktiboak	40
Formakuntzarako urraspidea	41
euskararen tokia formakuntzan	42
3/ AIGA formakuntza	43
AIGA formakuntzen helburuak	44
Edukiak	45
4/ Kalifikatuak eta esperientzadun formatzaileak	47
5/ Ikastun bakoitzaren laguntza	49
Ikastunen laguntzea eta ebaluaketa	50
Ikastunen segipena	51
6/ Gure lurraldean finkatua den formakuntza organismo bat	52
8/ Qualiopi zertifikazioa	54
Formakuntza profesionala Uda Lekun	55
Gure kalitate engaiamendua	56

**Uda lekun, formakuntza arloaren
kuadroa eta kontestua**



Arau oroitarazpena

2015eko uztailaren 15eko erabakia, adingabekoen harrera kolektiboen animatzaile eta zuzendari funtziorako gaitasun brebetei dagokiena.

2015eko uztailaren 15eko erabakiaren 5. artikulua, alinea 1,
2021eko otsailaren 12ko Erabakiak, 1. Art-k aldatua.

Legezko gaitasuna, honako kriterioak jarraitzen dituzten erakundeei baizik ez zaizkieke eman:

- 1° Heziketa egitasmo baten gorpuztea, Errepublikaren balioen eta bereziki laikotasunaren araberakoa, heziketa herriko baten urraspidean.
- 2° Formatzaile talde kalifikatuaren sare bat izatea, prestatutako brebete edo brebetei buruzkoa eta erregulariki parte hartzen duena, formakuntza erakundearen ikastaldi eta jardueren ingurakuntzan.
- 3° Dispositibo bat izatea, erakundeari dagokiona, hasieran eta jarraian, formakuntzetarako jarraipen erregular eta geldigabe bat eramanen duena;
- 4° Publiko orori, diskriminaziorik gabe, ikastaldiak irekitzea.
- 5° Heuren izendapena egin aitzineko informazio modalitateen finkapena, erabaki honen 11. eta 27. artikuluen arabera.
- 6° Ikaslearen laguntzaile eta jarraitzaile den dispositibo bat izatea, bere formakuntza osoan zehar.
- 7° Sorkuntza, prestakuntza eta prestatutako brebete edo brebetei dagozkien dokumentu eta tresnak ikasleen ta formatzaileen esku ematea.
- 8° Erabaki honen 11. eta 27. artikuluetan finkatu kriterioak erabili, ikasleen gaitasuna preziazteko.
- 9° Adingabeen harrera kolektiboen antolatzaileekiko partaidetza, formakuntzako ikastaldien egokitzapen kantitatibo eta kualitatibo bat segurtatzeko, beharren analisiekin batera.
- 10° Azpi-tratatzerik ez haizu.

Erabaki honi datxekion kargu kaieretan xehetua da kriterioen obratzea.



Formakuntzaren kontestua

AHHKen heziketarako kalitateak behartzen du, garrantzia handi bat emana izan zadion, zuzendari eta animatzaileen formakuntza haserako eta jarraiakoari.

Harrera eta animazio mailan, 40 urteko esperientzia izanik, hezkuntza herrikoian daukan esperientzia nahiko luke transmititu Uda Lekuk, bere berezitasunean finkatuz, hots heziketa harrera euskarazkoan. Horretarako antolatzen ditu Animatzaile Izaiteko Gaitasun Agiria (AIGA) eta formakuntza profesionalerako jarduerak.

Formakuntza boluntarioa :

3/4 AIGA formakuntza ikastaldi.

20 ikastun ikastaldika.

Noiztenkako eta profesional formatzaile talde bat.

Formakuntzak euskaraz nagusiki proposatuak.

Barnategian eginik diren formakuntzak lehenesten.

Etxepare lizeoarekin partaidetza.

Formakuntza profesionala :

7 orduetatik 21 orduetarako formakuntza saio tematikoak.

5 ikastunetatik goiti, 25 ikastun arte.

Formakuntza eskaintza antolatua edo behareri egokituak diren formakuntzak.

« Qualiopi » zertifikatua den formakuntza organismoa.

Formatzaile profesionalak.



AIGA (Animatzaile izaiteko gaitasun agiria) formakuntzen kuadroa

Ikastuneri begira, AIGA formakuntzen helburuak hauek dira:

- Animatzailearen funtzioa eta haren rola animatzaile taldean ezagutzea;
- Haurren beharren ezagutzea;
- Norberaren pedagogia hautuak finkatzea;
- Animazio teknika ezberdinak ezagutzea eta haurren zerbitzura egokitzea;
- Norberaren adierazpen gaitasunak, ekimenerako eta erresposabilitateetarako sentsua garatzea;
- Talde lana esperimentatzea.

Euskaraz ere, metodo aktiboak



Formakuntzarako urraspidea

Ikasleak erakarri nahi ditugu beren formakuntza ibilbidean osoki inplikatzera, beren rolari buruz, beraien ardura eta engaiamendua, haurren eta gazteen ko-hezkuntzan, eta orokorki gizartean urraspide gogoetagarri bat izateko gisan. Gure helburuak dira:

- ikasleak heuren formakuntzaren egile izatea;
- egitasmorako urraspidera abiaraztea ;
- ardurak aitzinatu arau hartzen laguntzea;
- analisiari eta praktiken ebaluaketari toki garrantzi baten ematea;
- ikasle bakoitza eta formazio taldeak ekimenera eta sorkuntzara laguntzea.
- ulermenean eta enpatian oinarritutako izaerak laguntzea.
- kooperazioa eta elkartasuna laguntzea;
- hutsegiteko eta ez jakiteko eskubidea zaintzea;
- bakoitzaren erritmoa errespetatzea.

Horretara heltzeko, urrats eramaileak hobesten ditu Uda Lekuk, erran nahi baita, praktikatik teoriara heltzea, ezagutarazteko eta formalizatzeko. Metodo aktiboak entseguak, hutsegiteak, haztamukak ahalbidetzen dituzte, edo ikasten ari direnen esperientzia mobilisatzeko ko-erakuntzarako. Beste metodo pedagogiko batzuk ere (erakusleak, galdetzaileak etabar...) erabiliak dira, hala nola teknika ezberdin batzuk hurbilketak ezberdintzeko, ikasleen formakuntzaren eta beharren helburuetara egokitzeko. Uda Lekuk ikasleei onartzen die heuren erritmoan aurreratzeko gaitasuna eta formakuntza ahal bezainbat bakoitzari, berak igurikatzen duenaren eta dituen beharren arabera heineratzen dio.

Ikastaldian talde bizitzaren antolaketa, AHKeko talde bizitzaren adierazgarria dena, formakuntza barneko zati bat da. Uda Lekuk hobesten ditu barnategiko formakuntzak, elkarrekin bititze horren esperientzia ahalbideratzeko. Barnategiak indartzen du ere talde dinamika eta euskarari emaniko denbora



Euskararen tokia formakuntzan

Uda Lekuko AIGA formakuntzen berezitasuna euskarari emana zaion erdiko tokian datza. Halabaina, gogoetatzeko, pentsatzeko, sortzeko, bere jakitateen garatzeko eta euskaraz (edo bi hizkuntzetan) animatzeko gai izateko, baitezpadakoa da euskaraz formatua izatea. Beraz, formakuntza denborak gehienbat euskaraz badoaz. Gure AIGA formakuntzak denei hurbilgarri izateko, euskara ez dakiten pertsoneri itzulpen bat segurtatzen zaie. Bakoitzak berak hautatzen du erabili nahi duen hizkuntza.

AIGA formakuntza



AI GA formakuntzaren helburuak

2015 urteko uztailaren 15 eko erabakiaren 9 garren artikulua

Funtzio hauen segurtatzeko animatzaileak prestatu/formatu:

- Adingabeen segurtasun fisikoa eta morala segurtatu eta bereziki sentsibilizatu ibilbide adiktiboen arriskuei, batez ere sexualitateari lotuak direnei;
- Parte hartu harreran, komunikazioan, eta eragile ezberdinen arteko harremanen garapenean;
- Talde baten baitan parte hartu egitasmo pedagogiko baten obratzerakoan, hezkuntza egitasmoarekin koherentzian.
- Eguneroko bizitza eta jarduerak inguratu eta animatu ;
- Adingabeak beren egitasmoen obratzen lagundu.

Animatzailearen gaitasunen garapenean lagundu, ahal hauek ukan ditzan:

- Errepublika eta batez ere laikotasunaren baloreak transmistitu eta partekatu;
- Kontestu sozial, kultural eta hezkuntzarekiko, bere engaiamendua kokatu;
- Talde pedagogikoarekin eta adingabekoekin kalitatezko harreman kolektiboak edo/ta indibidualak eraiki, diskriminazio forma guziak saihestuz ;
- Ahal den heinean, adingabekoek bizitzen dituzten egoera desberdinetan, erantzun aurrindu bat ekarri.



Edukiak

AlG Aren aurkezpena

Formakuntzaren ibilbidea.
Formakuntzarako pedagogia
egitasmoa.
Jarraipenerako ebaluaketa
kriterioak eta modalitateak.
Ikastaldi praktikoa egiteko
modalitateak.
Diplomaren balioztapen
modalitateak.
Formakuntzarako diru
laguntzak.

AHK en ingurumena

AHK mota ezberdinak.
AHK baten eragile eta
partaide ezberdinak.
Egitasmo ezberdinak.

Animatzailea

Haren eginkizun
hezitzailea.
Beraren funtzioak.
Taldean daukan tokia.

Publikoak

Adin aldi ezberdinen
ezaugarrien ezagutza.
Urritasun egoeran dauden
haurren eta gazteen harrera.
Taldea.

Egitasmoen gidaritza

Egitasmoaren aldiak.
Haurren eta gazteen
inplikazioa.
Komunikazioa.
Egitasmoaren ebaluaketa.



Edukiak

Animazioa eta jarduerak

Animazio egitasmoa.
Jarduerako ekitaldi baten prestakuntzarako aldiak.
Animatzailearen jarrera ezberdinak.
Jokoa.
Bakantza eta aisialdien nozioa.
Haurraren lekua, beraren inplikazioa.
Animaziorako teknikak.
Jarduera mota ezberdinak.
Eremuaren antolaketa.

AHKen eguneroko bizitza

Bizitzaren erritmoak.
Animatzailearen rola.
Bizitza kolektiboa.
Harrera denborak.
Familiekiko komunikazioa.
Elikadura.
Pausa.
Garbitasuna.
Osasuna.

Legedia

AHHKen araudi ingurua.
Ardura zibila eta penala.
Jarduera fisikoak.
Lekualdatzeak.
Bainua.

Emplegu eta ikastaldi bilaketa

Egitura mota eta antolatzaile ezberdinak.
CV motibazio gutuna.
Ikastaldi bat edo enplegu bat aurkitzeko baliabideak.

Kalifikatuak eta esperientzadun formatzaileak



Formatzaile taldea

Formakuntza taldearen misioa, animatzaile gaidun eta arduradunen formazioa segurtatzea da, adingabeak inguratzeko eta animatzeko AHHK-tean.

Animazio mailan esperientzia azkar bat duen formatzaile talde bat: gaurko animazio praktikak eta problematikak partekatzeko eta haietaz solastatzeko gaitasuna duena. Uda Lekuk formatzaileen formazio erregularra segurtatzen du.

Kriterio hauen jabe dira Uda Lekuko formatzaileak :

- AHHK-eko animatzaile edo zuzendari praktika okasionala edo profesionala izatea ;
- Uda Lekuren baloreak partekatzeko eta gure heziketa egitasmoan barne izatea.
- Formatzaileen hasierako eta jarraipeneko formakuntza saioetan parte hartzea ;
- Prestakuntzarako eta bilan bilkuretan parte hartzea ;
- Kalitatezko harreman bat sortzea ikasleekin eta formazioko taldearekin.

Antolatzen ditugun AHHKetak pedagogia taldeentzat bezala, ahal den bezainbat kasu egiten dugu, gure formatzaile taldeen mixitateari: mixitatea gizon eta emazteen artean, formatzaile esperimintatu eta formatzaile berrien artean, elkarteko langile permanente, noiztenkako formatzaile edota laguntzaileen artean.

Ikastun bakoitzaren laguntza



Ikastunen laguntzea eta ebaluaketa

Gure helburua da ikasle bakoitza laguntzea:

- Bere heziketa eta pedagogia hautuen argitzen ;
- Bere praktiken bilakaeran ;
- Bere sozial eta herritar engaiamenduan ;
- Bere ebaluaketa pertsonalean eta bere kalitate eta gaitasunen balorapenean ;
- Espiritu kritikoa biltzen eta garatzen.

Ikaslearen ebaluaketa bere gaitasunen preziaztean datza: animatzaile funtzioak betetzeko gaitasuna, jakitateak, egiten jakitea eta izaten jakitea bilduz. Ebaluaketa kriterioak eta metodoak ikastaldi bakoitzaren hastapenean aurkeztuak dira eta ikastaldiaren lekuan afitxatuak, partehartzaile guztiek behar arau begira diezaien beren formazio aldian zehar. Ebaluaketa aldika egiten da, formazioan zehar, eta forma asko har dezake (norbera, talde ttipitan...). Tresna ezberdinak proposatuak zaizkie bilan eraikitzaileak agertzeko (“ongi zen” “badoa, ongi pasatzen da” erratetik barnago joateko) eta ikaslearen aitzinamendua preziazteko.

Formazioaren bukaeran, formazioaren preziape bat formulatua da, behaketa eta geldigabeko harreman anitzen emaitza gisa. Ahal da ere, formatzaile taldeak ikastaldia ez baloratzea, baldin eta ikasleak ez baditu hastapenean finkatu kriterioak betetzen eta beraz ez baitirudi animatzaile izateko gai denik. Formazio taldeak beharko du justifikatu, ahal guztia egin duela pertsona hori, ahal bezain hobeki, brebeta lortzen laguntzeko.



Ikastunen segipena

Enplegu bilaketarako tailerrak antolatuak dira gure formakuntzetan, hala nahi duten partehartzaileentzat (CV motibazio gutuna, baliabideak etabar...). Uda Leku, ber denboran, formazio erakunde eta AHHK antolatzaile izanik, ikasleek beren ikastaldi praktikoa gure egituretarik batean egin dezakete. Azkenik, animatzaile ikasleen fitxategi bat erregularlari eguneratua da, AHHK-en tokiko antolatzaileen eta ikastaldia bilatzen duten ikasleen arteko harremana errazteko.

**Gure lurraldean finkatua den
formakuntza organismo bat**



Lurraldeko beharren araberako formakuntzak

Bere animatzaile beharrei erantzuteaz gain, Uda Lekuk lurralde osoko animatzaileen formazioan parte hartzen du. Anitz elkarteekin eta instituzioekin dituen harremanek, hala nola talde-lan ezberdinetan partehartzeak, ahalbidetzen dio Uda Lekuri, lurraldeko heziketa herrikoiko eragile ezberdinekin harremanetan izatea eta haien beharren eta behakizunen biltzea (kalifikazio-ikastaldien tematika, formazio ikastaldien kopurua etabar...) ahal bezain hobeki ihardesteko/erantzuteko.

Qualiopi zertifikazioa



Formazio profesionala Uda Lekun

Uda Lekuren formazio jarraituko jarduerak, formazio profesionalaren araudi ingurua errespetatzen dute. Formazioko jarduera (boluntarioa edo profesionala) obratzeko eta garatzeko, Uda Leku kalitateko urraspide batean dabil. Formazio profesionaleko urratsetan jarraitutako helburuak, AIGA formazioko urratzen berdinak dira (ikus gorago): ikaslea bere formazioaren erdian dago, pedagogia metodoak ezberdinak eta osagarriak dira, formazioa euskarari murgildurik egiten da.



Gure kalitate engaiamendua

Uda Leku engaiatzeko da, 2018ko irailaren 5eko legeko dekretuen errespetatzera, etorkizun profesionala hautatzearen aldekoak dira: 2019/06/06ko dekretua, N°2019-564 formazio profesionalaren jardueren kalitateari dagokiena. - 6/06/2019-ko dekretua: n°2019-564, gaitasunen garapena laguntzeko jardueren kalitate erreferentzialari dagokiona.

2018ko irailaren 5eko legeak zertifikazioa beharra ezartzen du formazio jarduerak proposatzen dituzten prestatzaile guztientzat, aprendiz formazioarentzat, gaitasun bilaneko VAE-rentzat, hitzarmenen merkatuan sartuz geroz (fondo publikoak edota fondo mutualisatu/paritarioak).

Uda Lekuk QUALIOPi zertifikatua dauka, Référentiel National Qualité (RNQ)-ren arabera. Formazio jarduerak bat egiteko beharrezko diren zazpi kriterio kalitateen gainean erreferentziatua izan behar da :

1. kriterioa: proposatua diren prestazioei buruz publiko informatzeko baldintzak, heltzeko epeak eta lortutako emaitzak.
2. kriterioa: proposatuak diren prestazioen helburuen identifikazio xuxena eta prestazio horiek publiko hartzaileari egokitzea, prestatzeak sortzeko aldiak.
3. kriterioa: prestazioen eta harrera, laguntze, jarraipen eta ebaluaketa publiko hartzaileei egokitzea.
4. kriterioa : bideratutako prestazioei baliabide pedagogiko, tekniko eta ingurukoak egokitzea.
5. kriterioa : prestazioak bideratzeko kargua duten pertsonen ezagutzak eta gaitasunak kalifikatu eta garatu.
6. kriterioa: inguru profesional batean, prestatzailearen inskripzioa eta inbertsioa.
7. kriterioa: egin diren prestatzeetan partehartzaileek formulatu prestatze eta erreklamazioak bildu eta kontuan hartu.